

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3556

AGINDUA, 2024ko uztailaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako deialdia egiten duena 2024-2025 ikasturterako.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak –abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak– 16. artikuluan ezartzen duenez, «Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa betetze aldera, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, molde eta espezialitate orotan, Konstituzioaren 27. artikulua eta bera gara dezaten lege organikoei kalterik egin gabe, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari aitortzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe eta hori betearazteko eta bermatzeko beharrezko den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe».

Halaber, herritar guztiek dute hezkuntzarako eskubidea eta irakaskuntzako askatasuna, eta botere publikoen zeregina da dauden mugak edo desorekak berdintzera bideratutako neurriak hartzea, hezkuntzara berdintasun egoeran iritsi ahal izateko.

Horrenbestez, aintzat hartu behar dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzei buruz indarrean dauden legeak, hain zuzen ere Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legea. Halaber, adierazi behar da Hezkuntza Sailaren 2024rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoak deialdi hau jasotzen duela 1. helburu estrategikoa betetzeko ardatz estrategikoen eta dirulaguntza-lerroen barruan. Plan hori helbide honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntzen-plan-estrategikoa/web01-s2hhome/eu/>

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– 2024-2025 ikasturterako, ondoz ondoko emakida-araubidean, honako beka eta laguntza hauek iragartzen dira, unibertsitate-graduaren mailatik beherako (eta ez baliokiderako) ikasketetarako, hezkuntza-sistemako honako irakaskuntza hauetako ikasleentzat:

a) Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musikako eta Dantzako oinarrizko irakaskuntzak.

b) Batxilergoa, Lanbide Heziketa, hizkuntzen irakaskuntzak, Musikako eta Dantzako irakaskuntza profesionalak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza profesionalak eta kirol-irakaskuntzak.

2.– Agindu honen I. eranskinean ageri diren deialdiaren oinarriak onartzen dira, honako egitura honekin:

a) I. kapitulua: irakaskuntza-maila hauetarako ikasketa-laguntzak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musikako eta Dantzako oinarrizko irakaskuntzak.

b) II. kapitulua: irakaskuntza-maila hauetarako ikasketa-bekak: Batxilergoa, Oinarrizko, Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa, irakaskuntza artistiko profesionalak, kirol-irakaskuntzak, hizkuntza-irakaskuntzak.

c) III. kapitulua: berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzako laguntza eta sorospen espezifikoak.

d) IV. kapitulua: aurreko kapituluetan aipatzen diren unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako (eta ez-baliokideetako) hezkuntza-sistemako ikasketak egiteko beken eta laguntzen xedapen komunak.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

72.000.000 euro bideratuko dira helburu horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako finkatutako aurrekontu-partiden kontura.

Behar izanez gero, adierazitako zenbatekoak handituko dira, kontuan harturik ebazteko dauden eta ebazpen-proposamena duten eskabideen zenbatekoa, eta horiek ebatzi baino lehenago. Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen baten bidez emango da horren berri, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua aipatutako aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 16a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

ERANSKINA

2024-2025 IKASTURTERAKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASKETETARAKO
IKASKETA-BEKA ETA -LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRIAK

I. KAPITULUA

IRAKASKUNTZA-MAILA HAUETARAKO IKASKETA-LAGUNTZAK: HAUR HEZKUNTZA,
LEHEN HEZKUNTZA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA ETA MUSIKAKO ETA
DANTZAKO OINARRIZKO IRAKASKUNTZAK

1. artikulua.– Zer ikasketa egiteko eska daitekeen laguntza.

Kapitulu honetan aurreikusitako ikasketa-laguntzak ikasketa hauetakoren bat egiten duten ikasleei bideratuta daude:

- a) Haur Hezkuntza.
- b) Lehen Hezkuntza.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- d) Musikako eta dantzako oinarrizko ikasketak.

2. artikulua.– Laguntzaren osagaiak.

Kapitulu honetan jasotako ikasketa-laguntzek osagai hauetakoren bat edo gehiago eduki ahal izango dute:

- a) Kuotaren osagaia.
- b) Ikasmaterialaren osagaia.
- c) Jantokiaren osagaia.

3. artikulua.– Kuotaren osagaia, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleentzat.

1.– Osagai honek ezingo du inolaz ere gainditu 2024-2025 ikasturtean matrikulatuta dagoen ikastetxean ikasleak ordaindu behar duen kuota.

2.– Kontzeptu honengatik kuota ordaintzen ez duten ikastetxeetan ez da egongo.

3.– Hauek izango dira zenbatekoak:

a) 0 eta 1 urte arteko ikasleak: 90 euro 2024-2025 ikasturtean ikaslea ikastetxera joaten den hilabete bakoitzeko –gehienez ere 10 hilabete–.

b) 2 urtekoen gelako ikasleak: 200 euroko ordainketa bakarra. Ez da egongo ikastetxe publikoetan, itunpeko ikastetxeetan eta kontzeptu honengatik kuota ordaintzen ez duten ikastetxeetan.

4.– Bekaren osagai hori emateko, bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezin du gainditu 24. artikuluan zehaztutako 1. muga.

4. artikulua.– Ikasmaterialaren osagaia.

1.– Osagai hau ikasketa-maila guztiei emango zaie, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari izan ezik.

2.– Ezingo dute osagai hau eskuratu baldin eta Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari diren ikasleek uko egiten badiote curriculuma garatzeko material didaktikoaren eta bitartekoen programari.

3.– Hauek izango dira zenbatekoak:

- a) Haur Hezkuntzako bigarren zikloa: 78 euro.
- b) Lehen Hezkuntza: 117 euro.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 159 euro.
- d) Musikako eta dantzako oinarrizko ikasketak: 159 euro.

4.– Egoera hauetan ez dira zenbateko horiek emango:

a) Ikastetxe publikoetan matrikulatutako Lehen Hezkuntzako ikasleak, eta hau izango da zenbatekoa:

- 38 euro lehen eta bigarren mailetarako.
- 50 euro hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailetarako.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak, baldin eta ikastetxe publikoetan matrikulatuta badaude; halakoetan, 60 euro emango dira.

5.– Bekaren osagai hori emateko, bizikidetza- edo familia-unitatearen errentak ezin ditu gainditu 24. artikuluan zehaztutako muga hauek:

- a) Haur Hezkuntzako bigarren zikloa: 2. muga.
- b) Gainerako irakaskuntzak: 3. muga.

5. artikulua.– Jantokiaren osagaia.

1.– Osagai hau Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren mailako (2 urtekoen gela), Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei emango zaie, baldin eta jantokia erabiltzen badute.

2.– Osagai hau baliatzeko eskubidea izateko, ikasleak jantoki-zerbitzua erabili beharko du eguerdian, eta ikasturtean jantokira 20 egunetan baino gehiagotan joan izana justifikatu beharko du.

3.– Osagai honen zenbatekoa honela kalkulatu da: jantokira doan egun-kopurua –gehienez ere 178 egun– bider ordaindutako prezioa, betiere egunean 4,60 eurotik beherakoa bada. Hortik gorakoa izanez gero, azken kopuru hori hartuko da erreferentziazat osagai honen zenbatekoa kalkulatzeko.

4.– Edonola ere, osagai honegatik eman beharreko gehieneko zenbatekoa 818,80 euro da.

5.– Bekaren osagai hori emateko, bizikidetza- edo familia-unitatearen errentak ezin ditu gainditu 24. artikuluan zehaztutako muga hauek:

- a) Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren mailako ikasleak (2 urtekoen gela): 1. muga.
- b) Gainerako irakaskuntzak: 2. muga.

II. KAPITULUA

IRAKASKUNTZA-MAILA HAUETARAKO IKASKETA-BEKAK: BATXILERGOA, ERDI- ETA GOI-MAILAKO LANBIDE-HEZIKETA, IRAKASKUNTZA ARTISTIKO PROFESIONALAK, KIROL-IRAKASKUNTZAK HIZKUNTZA-IRAKASKUNTZAK ETA OINARRIZKO MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

6. artikulua.– Zer irakaskuntza egiteko eska daitekeen beka.

Kapitulu honetako bekak irakaskuntza hauetara daude bideratuta:

- a) Batxilergoa.
- b) Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketa.
- c) Irakaskuntza artistiko profesionalak.
- d) Kirol-irakaskuntzak.
- e) Hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialetan egiten diren hizkuntza-irakaskuntzak, urrutiko modalitatea barnean dela.
- f) Oinarrizko mailako Lanbide Heziketa.

7. artikulua.– Bekaren osagaiak.

Deialdi honetan araututako bekek osagai hauetakoren bat edo gehiago eduki ahal izango dute:

- a) Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- b) Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- c) Oinarrizko bekaren osagaia.
- d) Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- e) Zenbateko osagarriaren osagaia.

8. artikulua.– Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

1.– Kapitulu honen 6. artikuluan a) letratik d) letrara bitartean zerrendatutako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Zenbatekoa 1.700 eurokoa izango da.

3.– Osagai hau irakaskuntza presentziala eta matrikula osoa egiten duten eskatzaileei soilik adjudikatzen zaie.

4.– Ezingo dute osagai hau jaso modalitate dualeko Lanbide Heziketako heziketa-zikloetako ikasleek, baldin eta 2024-2025 ikasturtean Lanbide Heziketa dualeko proiektuak egiten ari badira eta horregatik konpentsazio ekonomiko bat jasotzen badute.

5.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezingo du gainditu 24. artikuluan zehaztutako 1. muga.

9. artikulua.– Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

1.– Kapitulu honen 6. artikulua a) letratik d) letrara bitartean zerrendatutako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau, baldin eta aurrez aurre eta matrikula osoarekin ikasten badute.

2.– Zenbatekoa 2.500 eurokoa izango da. Halere, zenbateko hori ez da inoiz izango prestazioaren benetako kostua baino handiagoa.

3.– Osagai hau emateko, irakaskuntza artistiko profesionalak egiten dituzten eskatzaileen kasuan, dantzako erdi-mailako ikasketak izan ezik, eskola-orduak ezingo dira astean 20 baino gutxiago izan. Kontuan hartuko da eskatzailea bizi den herrian edo egunean bertan garraio publikoan joateko eta itzultzeko aukera ematen dion hurbileko beste herri batean ikastetxe egokirik dagoen, baldin eta lekurik badu eta egin nahi dituen ikasketak ematen baditu.

4.– Ikastetxetik hurbilen dagoena edo eskatzailearen gurasoetako edozein normalean bizi dena joko da familiaren helbidetzat, legezko helbidearekin bat ez etorri arren.

5.– Bizilekuari lotutako zenbateko finkoa ordainduko da soilik etxebizitza alokatzeko edo ostatuetan, ikasle-egoitzetan edo antzekoetan ostatu hartzeko gastuak egiaztatzen badira. Ikaslearen izena ageri den alokairu-kontratuaren kopiaren eta fidantzaren eta lehen hilabeteko alokairuaren ordainketen egiaztagirien bidez egiaztatuko da etxebizitzaren alokairua. Ez dira onartuko odolkidetasunaren 4. mailara eta ahaidetasunaren 2. mailara arteko senideenak diren etxebizitzaren alokairuko kontratuak.

6.– 23.4 artikulua arabera, familiaren laguntza ekonomikorik gabe bizitzeko baliabideak dituzten ikasleek ezingo dute eskuratu egoitza-osagaia; izan ere, ohiko bizilekutzat hartuko da ikasturtean izango duten bizilekua, nahiz eta erroldan ageri den bizilekua ez izan.

7.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezingo du gainditu 24. artikuluan zehaztutako 2. muga.

10. artikulua.– Oinarrizko bekaren osagaia.

1.– Kapitulu honen 6. artikuluan zerrendatutako ikasketetako edozeinetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Zenbatekoa 300 eurokoa izango da. Oinarrizko mailako heziketa-zikloak egitekotan, zenbatekoa 350 eurokoa izango da.

3.– Osagai hau bateraezina izango da eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoarekin.

4.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezingo du gainditu 24. artikuluan zehaztutako 3. muga.

11. artikulua.– Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

1.– Kapitulu honen 6. artikulua a) letratik d) letrara bitartean zerrendatutako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Errendimendu akademikoaren bikaintasunari lotutako zenbatekoa adjudikatzeko, eskatzaileak egiaztatu beharko du batez beste 8,00 puntuko edo gehiagoko nota lortu duela ikasturtean, sarrera-probetan edo aurretiazko ikasketetan.

3.– Zenbatekoa 50 eta 125 euro bitartekoa izango da, aurreko ikasturtean lortutako batez besteko notaren arabera, honela banatuta:

Ikaslearen batez besteko nota	Zenbatekoa (eurotan)
8,00 eta 8,49 punturen artean	50 euro
8,50 eta 8,99 punturen artean	75 euro
9,00 eta 9,49 punturen artean	100 euro
9,50 puntu edo gehiago	125 euro

4.– Osagai hau emateko, aurreko ikasturteko batez besteko nota hartuko da kontuan. Bitartean urte akademikoren bat igaro bada ikasketarik egin gabe, eginiko azken ikasturteko batez besteko nota hartuko da kontuan. Egiten ari den ikasketen lehen ikasturtea bada, kontuan hartuko da sartzeko proba, ikastaro edo ikasketako batez besteko nota.

5.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezingo du gainditu 24. artikuluan finkatutako 3. muga.

12. artikulua.– Zenbateko osagarriaren osagaia.

1.– Kapitulu honen 6. artikuluan zerrendatutako ikasketetako edozeinetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Zenbatekoa 60 eurokoa izango da.

3.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errentak ezingo du gainditu 24. artikuluan zehaztutako 2. muga.

III. KAPITULUA

BERARIAZKO HEZKUNTZA-LAGUNTZA BEHAR DUTEN IKASLEENTZAKO LAGUNTZA ETA SOROSPEN ESPEZIFIKOAK

13. artikulua.– Hartzaileak.

1.– III. kapitulu honetan jasotako laguntzak eta sorospenak jarraian zerrendatzen diren hezkuntza-laguntzako premia espezifikoen tipologiaren bat edo batzuk dituzten ikasleentzat dira:

a) Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak, arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (ADHN) duten ikasleak barnean direla, % 25eko edo gehiagoko desgaitasunaren edo jokabide-nahasmendu larriaren ondorioz.

b) Hezkuntza-premia bereziekin lotutako komunikazio- eta hizkuntza-nahasmendu larriak dituzten ikasleak.

c) Autismoaren espektroko nahasmenduari (AEN) lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak.

d) Gaitasun intelektual handiarekin lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak dituzten ikasleak.

2024ko uztailaren 19a, ostirala

2.– 16. artikuluan jasotako jantoki- eta garraio-sorospenak familia ugariako ikasleei baino ez zaizkie emango.

14. artikulua.– Sartzen diren irakaskuntzak.

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleentzako laguntza eta sorospenetan honako irakaskuntza hauek sartzen dira:

- a) Haur Hezkuntzako lehen zikloa, baldin eta bi urte bete badira 2023ko abenduaren 31n.
- b) Haur Hezkuntzako bigarren zikloa.
- c) Lehen Hezkuntza.
- d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- e) Batxilergoa.
- f) Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloak.
- g) Oinarrizko mailako heziketa-zikloak.
- h) Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren I. tituluaren IV. kapituluaren 3. atalak aipatzen dituen Lanbide Heziketako beste prestakuntza-programa batzuk, baldin eta 33.2 artikuluko baldintzak betetzen badira, eta, oinarrizko mailako heziketa-zikloen kasuan, 89.2.c) artikulukoak.

15. artikulua.– Sartzen diren laguntzak.

1.– I. eta II. kapituluetan aurreikusitako laguntza-osagaiez gain, 13.1 artikuluan a), b) eta c) letretan aurreikusitako ikasleentzako laguntzen osagaiak eta zenbatekoak taula honetan adierazitakoak dira:

Osagaia	Zenbatekoa (eurotan)
Irakaskuntza-laguntza	862 euro, gehienez
Eskola-garraiorako laguntza	617 euro, gehienez
Zereginak ikasteko ikasleentzako ikasmaterialerako laguntza	204 euro, gehienez
Pedagogia-berreziketarako laguntza	913 euro, gehienez
Hizkuntza-berreziketarako laguntza	913 euro, gehienez

Garraiorako laguntzetarako aurreko taulan ezarritako zenbatekoak ehuneko 50eraino handituko dira ikasleek ehuneko 65etik gorako mugitzeko desgaitasun aitortua badute.

2.– Adimen-gaitasun handiari lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleentzako laguntzaren xedea izango da –13.1 artikuluan d) letran jasotakoa– ikasle horientzako programa espezifikoetan izena emateak eta bertaratzeak eragindako gastuak ordaintzea. Laguntza horren zenbatekoa, gehienez ere, 913 eurokoa izango da ikasturteko.

3.– Pedagogia-berreziketarako, hizkuntzaren berreziketarako eta adimen-gaitasun handiari lotutako berariazko programetarako laguntzetan, laguntzaren zenbatekoaren ondorioetarako, gehienez ere ikasturteko 10 hilabeteetan sortutako kostua zenbatuko da, eta horri 1. eta 2. apartatuetan finkatutako gehienekoa aplikatuko zaio.

4.– Laguntzak emateko, bizikidetza- edo familia-errentak ezin izango du gainditu apartatu honetan finkatutako muga, eta haren ondareak ere ezin izango ditu gainditu IV. kapituluko 27. artikuluan finkatutako mugak.

Kide konputagarrien kopurua	Muga (eurotan)
1	12.534 euro
2	20.416 euro
3	26.811 euro
4	31.801 euro
5	36.089 euro
6	40.229 euro
7	44.143 euro
8	48.031 euro
+1*	+3.856 euro

(*) 8tik gorako kide konputagarri bakoitzeko, (+1) gisa ezarri diren kopuruak gehituko dira.

16. artikulua.– Sartzten diren sorospenak.

1.– Jantokiko eta eskola-garraioko sorospenen hartzaille izango dira 13.1 artikulua a), b) edo c) letretan jasotako kasuetan dauden eta familia ugariakoak diren ikasleak.

2.– Era berean, zenbateko finkoko sorospen bat ezartzen da hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak eskolatzearen ondoriozko gastu gehigarri orokorretarako (13. artikuluan aipatu da).

3.– Sorospenak eskola-jantokiko eta eskola-garraioko gastuetarako izango dira, honako zenbateko hauetan:

Osagaia	Zenbatekoa (eurotan)
Eskola-garraiorako sorospena	617 euro, gehienez
Eskola-jantokirako sorospena	574 euro, gehienez
Gastu gehigarrietarako zenbateko finkoko sorospena	400 euro

4.– Sorospenak jasoko dituzten ikasleek, I., II. eta III. kapituluetan aurreikusitako laguntza-osagaiez gain, horiek lortu ahal izango dituzte, eskola-jantokiko sorospena izan ezik; izan ere, I. eta II. kapituluetan aurreikusitako eskola-jantokiko laguntzaren onuradun ez badira soilik emango da sorospen hori.

5.– Sorospenak emateko, ez dira kontuan hartuko familiaren errenta eta ondarea.

17. artikulua.– Betekizunak.

III. kapitulu honetan jasotako laguntzak eta sorospenak emateko, betekizun hauek bete behar dira:

1.– Kapitulu honetako laguntzak eta sorospenak jasoko dituzten ikasleek hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasle gisa erregistratuta egon beharko dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aplikazio informatikoan.

2.– Ikastetxe espezifiko batean, ikastetxe arrunt bateko hezkuntza bereziko unitate batean edo hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoa duten ikasleak eskolatzeko baimena duen ikastetxe arrunt batean eskolatuta egon behar dute ikasleek.

3.– Gaitasun handiko ikasleentzako programa espezifikoetarako, pedagogia-berreziketarako eta hizkuntza-berreziketarako laguntzen kasuan, zerbitzua ematen duen berrezitzaileak edo ikastetxeak sinatutako memoria erantsi beharko da, zerbitzu horren ezaugarriei buruzko informazio zehatza jasoko duena, honako hauek barnean direla: asteko eta ikasturteko ordu-kopurua, zerbitzua ematen duen espezialista eta kurtsoaren hileko eta guztizko kostua. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko, gehienez ere ikasturteko 10 hilabeteetan sortutako kostua hartuko da kontuan.

18. artikulua.– Bateriaezintasunak.

1.– Zerbitzu edo funts publikoek edo, hala badagokio, ikastetxeei zerbitzu hori finantzatzeko emandako laguntzek behar bezala estaltzen badituzte gastuak, ez da laguntza edo sorospenik emango. Doako zerbitzu bat estali nahi denean ere ez da laguntzarik eta sorospenik emango.

2.– III. kapitulu honetan jasotako eskola-garraiorako laguntza eta sorospena bateraezinak dira Hezkuntza Sailak antolatutako eskola-garraioaren erabilizaile izatearekin eta 164/2023 Dekretuan jasotako banakako laguntzekin (164/2023 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleek hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak finantzatuta daukaten eskola-garraioari buruzkoa).

19. artikulua.– Familia-errentaren kenkariak.

1.– Bizikidetzaren unitatearen errenta zehaztu ondoren, 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako kontzeptuengatik dagozkion zenbatekoak kenduko dira:

- a) Familiako kide konputagarri guztiek ekarritako diru-sarreraren % 50, baldin eta ez badira sostengatzaile nagusiak.
- b) 2.000 euro, eskatzailea familia ugarikoa bada.
- c) 4.000 euro eskatzailearengatik eta beste horrenbeste neba-arreba bakoitzarengatik, betiere legez kalifikatutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna badute.
- d) 1.176 euro eskatzailearen 25 urtetik beherako neba-arreba bakoitzeko, baldin eta familiaren egoitza kanpo bizi bada, unibertsitate-ikasketak direla-eta familiaren egoitza kanpo bizi diren ikasleak bi edo gehiago badira.
- e) Familia-errentaren % 20, eskatzailea erabateko umezurtza eta 25 urtetik beherakoa denean.
- f) 500 euro eskatzailea guraso bakarreko familia batekoa bada. Ondorio horietarako, guraso bakarreko familiazat hartuko dira honako hauek: pertsona heldu bakar batek osatutakoa – familiaren sostengatzaile bakarra dena–, baldin eta 25 urtetik beherako seme-alaba batekin edo gehiagorekin (edo adin handiagokoekin, desgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala duten pertsonen kasuan) bizi bada, edo familia-harrera iraunkorreko erregimenean edo adopzio-helburuko zaintzan bere kargura dagoen adingabe batekin edo gehiagorekin bizi bada.

2.– Kenkari horiek kontuan hartzeko, egiaztatu beharko da egoera horiek 2024ko abenduaren 31n betetzen zirela.

IV. KAPITULUA

UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASKETATARAKO ETA EZ BALIOKIDEETARAKO
IKASKETA-BEKA ETA -LAGUNTZEN XEDAPEN KOMUNAK

20. artikulua.– Betekizun orokorrak.

1.– Deialdi honetan jasotzen diren ikasketek ofizialki aitortuta egon behar dute, eta hezkuntza-administrazioak onartutako ikasketa-planekin bat etorri.

2.– Ikasleek Agindu honetan ezarritako ikasketa-mailaren batean egon beharko dute matrikulatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe baimenduetan.

3.– 2024ko irailaren 30ean ikasleek ez izatea beka edo laguntzarekin egin nahi dituzten ikasketen maila bereko edo handiagoko titulu ofizialik, eta ez betetzea horrelako tituluren bat eskuratzeko legezko betekizunak.

21. artikulua.– Baztertzeak.

Egoera hauetan, beka edo laguntza ukatu egingo da:

a) Baimendu gabeko ikastetxe pribatuetoako ikasleek ez dute ikasketa-laguntzarik jasotzerik izango, ikastetxean zein ikasketa egiten den gorabehera. Hala ere, ikasketa horietako irakasgai guztietako azterketak ikastetxe ofizialetan egiten badituzte, onartu egingo dira.

b) Baimendu gabeko ikastetxeetako edo Haur Hezkuntzako lehen zikloa irakasteko ikastetxeen erroldan inskribatu gabeko haur-eskoletako ikasleak.

c) Dirulaguntzen onuradun izateko ezgaitzen duen legezko edozein arrazoi izatea edo deialdi honetan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.

22. artikulua.– Beken eta laguntzen zenbatekoa.

1.– Ikasleak zenbat osagai jasotzeko eskubidea duen, bada, osagai horien baturak emango du beka edo laguntzaren zenbatekoa, betiere Agindu honetan ezartzen diren arauen arabera. Zenbatekoa, gehienez, zerbitzu bakoitzaren benetako kostuaren parekoa izango da, inoiz ere ez hortik gorakoa.

2.– Inork ezin dezake jaso agindu honetan arautzen diren beka edo laguntzetariko bat baino gehiago, nahiz eta aldi berean agindu honetan aipatzen diren beste ikasketa batzuk egin. Eskatzaile batek beka-eskaera bat baino gehiago aurkezten badu, aurkeztutako azken beka-eskaera soilik izapidetuko da.

23. artikulua.– Bizikidetzatza- edo familia-unitateko kide konputagarriak eta sostengatzaile ekonomiko nagusiak zehaztea.

1.– Bekaren eta laguntzaren ondorioetarako, hauek dira kide konputagarriak:

a) Eskatzailea.

b) Gurasoak eta, hala badagokio, tutorea edo adingabea zaintzeaz eta babesteaz arduratzen den pertsona; haiek joko dira familiaren sostengatzaile nagusitzat.

2023an edo 2024an gurasoetako bat hiltzen bada, ez da zenbatuko bizikidetzatza-unitateko kidezat.

c) 2023ko abenduaren 31n hogeita bost urte baino gutxiago dituzten neba-arreba ezkongabeak (neba-arrebek desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala badute, hogeita bost urtetik gorakoak izan daitezke), ohiko bizilekuan bizi direnak.

d) Gurasoetako edozeinen aurrekoak, baldin eta etxebizitza berean bizi direla egiaztatzen badute dagokion udal-ziurtagiriaren bidez. Hori egiaztatzeko, helbide berean bizi dela adierazten duen errolda-agiria hartuko da baliozkotzat.

e) Harrera iraunkorreko erregimenean edo adopzioarako zaintzan dauden adingabeak.

f) Aparteko zirkunstantziengatik eskatzaileari harrera ematen dioten beste senide edo familia-loturarik gabeko beste pertsona batzuk.

g) Salbuespen gisa, kide konputagarritzat jo ahal izango dira eskatzailearekin bizi diren beste senide batzuk, eskatzailea zurtza baldin bada, eta, betiere, eskatzaileak behar bezala egiaztatzen badu ekonomikoki haien mende dagoela eta 2023. urtean ez zuela beste sostengatzailerik izan.

h) Eskatzaileek familia-unitate independenteak osatzen badituzte, kide konputagarri eta sostengatzaile nagusitzat hartuko dira eskatzailea eta haren ezkontidea, haren bikotekidea, erregistratuta egon edo ez, edo antzeko harreman baten bidez lotuta dagoena. Kide konputagarriak izango dira, halaber, hogeita bost urtetik beherako seme-alabak, halakorik badago, eta etxebizitza berean bizi badira.

Beraz, kasu horietan guztietan, horien errentak eta ondarea zenbatuko dira.

2.– Gurasoak legez edo izatez dibortziatuta edo bananduta badaude, bekaren eskatzailearekin bizi ez dena ez da kide konputagarritzat joko; halere, mantenu-pentsio edo konpentsazio-pentsio gisa ordaintzen diren kopuruak bizikidetzaren diru-sarreratzat zenbatuko dira, judizialki onartutako neurrien arabera.

Dena dela, hala badagokio, kide konputagarri eta sostengatzaile nagusitzat joko da ezkontide, bikotekide (erregistratuta egon edo ez) edo antzeko harreman baten bidez lotutako pertsona berria, eta haren errentak eta ondarea familiaren errenta eta ondarearen barruan sartuko dira. Horrez gain, kide konputagarritzat joko dira bikotekide berriaren ondorengoak, eskatzailearekin bizi badira, bai eta bizikidetzaren unitateak horietatik jasotzen dituen diru-sarrerak ere.

Halaber, kide konputagarritzat joko da aipatutako datan eskatzailearekin etxe berean bizi den pertsona –diru-sarrera propioak dituen–, nahiz eta haien artean ez izan ahaidetasun-harremanik eta ezin justifikatu alokairuzko etxebizitza partekatzen dutela.

3.– Seme-alaben zaintza-araubidea zaintza partekatua denean, hauek hartuko dira kide konputagarritzat: bekaren eskatzailearen gurasoak, horien seme-alaba komunak eta aipatutako enbizileku berean bizi diren gurasoen aurreko ahaideak ere, betiere udalaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badute; familiaren sostengatzaile nagusitzat joko dira eskatzailearen gurasoak.

4.– Eskatzailea jatorrizko familiatik independizatu bada edo zurtza bada eta bizikidetzaren unitate bat osatzen badu:

a) Kide konputagarritzat joko dira, bekaren ondorioetarako, honako hauek:

– Eskatzailea.

– Haren ezkontidea edo izatezko bikotea, erregistratuta egon edo ez, edo antzeko harreman baten bidez lotutako pertsona.

– Hogeita bost urtetik beherako seme-alabak (seme-alabek desgaitasun funtzional fisikoa, psikikoa edo sentsoriala badute, hogeita bost urtetik gorakoak izan daitezke, gurasoen mende bizi badira).

– Foru-araudian onartutako harrera-egoera batean dauden pertsonak; eta inguruabar hori behar bezala alegatu eta egiaztatu beharko da.

– Kide konputagarritzat joko da 2023ko abenduaren 31n eskatzailearekin etxe berean bizi den pertsona –diru-sarrera propioak dituena–, nahiz eta haien artean ez izan ahaidetasun-harremanik eta ezin justifikatu alokairuzko etxebizitza partekatzen dutela.

b) Sostengatzaile ekonomiko nagusiak dira bizikidetzatza- edo familia-unitatea ekonomikoki mantentzeko diru-sarrera nagusiak eskuratzen dituzten kide konputagarriak.

c) Familiaren egoitzatza joko da eskatzailea ikasturtean bizi dena; kasu horretan, ez da egoitza-osagaia emango.

d) Honela egiaztatu beharko du familia-independentzia:

– Eskatzaileak bere bizilekuan egon beharko du erroldatua, eta ez gurasoen etxean (erositako edo alokatutako etxebizitza batean, bakarrik edo pisu partekatu batean; eta bizilekua ezin da senide batena izan, 4. mailara arteko ahaidetasuna odol bidez edo 2. mailara arteko ahaidetasuna ezkontza bidez). Halere, alokairuaren zerga-aitorpena egiaztatzen bada, odol bidezko eta ezkontza bidezko ahaidetasun-maila horiek ere onartuko dira.

– Erabateko zurztasunaren kasuan, nahikoa izango da hori egiaztatzeko ziurtagiria.

e) Ekonomikoki independente dela egiaztatu beharko du, gastuak (janaria, arropa, etxebizitza, garraioa) ordaintzeko behar beste ekonomia-baliabide dituela ziurtatuz. Ondorio horietarako, eskatzailearen baliabide ekonomikoak kalkulatzeko, haren diru-sarrerak batuko dira eta ez dira kontuan hartuko ohiko bizilekuan bizi den beste pertsona batenak. Diru-sarrerak 1. mugaren parekoak edo txikiagoak baldin badira, pertsona horrek Lanbidek kudeatutako diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako dirulaguntza osagarria eskatu ahaliko ditu, bai eta beste laguntza batzuk ere. Hortaz, dirulaguntza horiek eskatu dituela eta zer egoeratan dauden egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu. Diru gastuak ordaintzeko beste diru-sarrera dagoela egiaztatzeko xedez, honako hauek aztertuko dira:

– Eskatzaileak aurkeztu dituen diru-sarreraren eta gastuen arteko balantzea, hori ziurtatzeko agiriekin batera. Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eskatu ahal ditu.

– Zerga-egiaztagiria, gurasoek berarengatik ez dutela zerga-kenkaririk egiten berresteko.

Eskatzaile bat ekonomikoki independentea dela jo ahal izateko, gurasoek edo legezko tutoreek ezin dute eskatzaileari lotutako zerga-kenkaririk egin PFEZaren aitorten-likidazioan.

Eskatzaileak emantzipazio-programa baten laguntza jasotzen badu, eta horretan janaria eta ostatua sartuta baldin badaude, independentzia familiarraren betekizuna betetzetik salbuetsita egongo da, baina independentzia ekonomikoari lotutako agiriak aurkeztu beharko ditu.

24. artikulua.– Errenta-mugak.

Honako errenta-muga hauek aplikatuko dira beka eta laguntzen osagaiak emateko:

a) I. kapitulan jasotako ikasketetarako:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloan, familiaren errentak ezin izango du 1. muga gainditu.

– Haur Hezkuntzako mailako 2. zikloan, familiaren errentak ezin izango du 2. muga gainditu.

– Gainerako irakaskuntzetan:

1.– Ikasmaterialaren osagairako, familiaren errentak ezin izango du 3. muga gainditu.

2.– Jantokiaren osagairako, familiaren errentak ezin izango du 2. muga gainditu.

b) II. kapituluan jasotako ikasketetarako:

– Errentari lotutako zenbateko finkoaren osagairako, familiaren errentak ezin izango du 1. muga gainditu.

– Bizilekuari lotutako zenbateko finkoaren osagairako eta zenbateko osagarrirako, familiaren errentak ezin izango du 2. muga gainditu.

– Oinarrizko bekaren zenbatekoa eta errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoa emateko, familiaren errentak ezin izango du 3. muga gainditu.

Kide-kopuru konputagarria	1. muga (eurotan)	2. muga (eurotan)	3. muga (eurotan)
1	9.315	13.898	15.567
2	13.971	23.724	26.573
3	18.629	32.201	36.070
4	23.286	38.242	42.836
5	27.012	42.743	47.878
6	30.738	46.142	51.685
7	34.463	49.503	55.451
8	38.190	52.850	59.199
(+1)*	+3.725	+3.340	+3.740

(*) 8tik gorako kide konputagarri bakoitzeko, errenta-mugetan (+1) gisa ezarri diren zenbatekoak gehituko dira.

25. artikulua.– Bizikidetzaren edo familia-unitatearen errenta kalkulatzeko.

1.– Bekaren edo laguntzaren ondorioetarako, familiaren errenta kalkulatzeko, familiako kide konputagarri bakoitzaren errentak batuko dira, baldin eta edozein motatako diru-sarrerak baditu. Errenta horiek kalkulatzeko, kontuan hartuko dira hurrengo apartatuetan adierazten direnak, eta bat etorrita aplikatu beharreko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudi erregulatzailarekin. 2024-2025 ikasturteko ikasketa-beka eta -laguntzen ondorioetarako, 2023ko ekitaldia zenbatuko da.

2.– 2023ko ekitaldian pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztu duten kide konputagarrien errenta zehazteko, zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria batuko dira. Zerga-oinarri orokor osoak edo zati batek jarduera ekonomikoen etekinak baditu, eta etekin horiek zeinu negatiboa badute, emaitza 0 izango da. Gainerako zenbatekoari kuota likidoa kenduko zaio. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenean jaso ez diren diru-sarrera eta laguntzak gehitu egingo zaizkio aurreko formularekin ateratako emaitzari.

3.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzea egiteko obligaziorik izan ez, eta halakorik aurkeztu ez duten kide konputagarrien errenta honela kalkulatu da:

a) 2023ko ekitaldian edozein kontzeptu dela-eta lortutako diru-sarrerak guztiak batuko dira, baita ohiko etxebizitza ez diren hiri-ondasunen etekina ere –PFEZaren ondorioetarako konputagarria–, betiere 2023ko ekitaldirako zerga-araudiaren arabera.

b) Batura horretatik kenduko dira konturako atxikipenen zenbatekoa eta kasu bakoitzean aplikatzeko den pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arau erregulatuak adierazten dituen gastu kengarri guztiak.

4.– Aipatutako zergaren ondorioetarako aitortutako diru-sarreraren datuak edo zerga horretatik kanpo aitortutakoak txikiagoak badira diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo urte horretan errolatuta egon zen autonomia-erkidegoko laguntza baliokidearen erregulazioaren arabera bizikidetzaren unitateari legokiokeen zenbatekoa baino, justifikatu beharko da zergatik ez zen eskaera egin edo zergatik ukatu zitzaion, eta urte hartako bizi-baliabideak egiaztatu beharko dira (Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Estatu Enplegu Zerbitzu Publikoaren laguntzak eta beste udal-, foru- edo probintzia-laguntza batzuk edo beste erakunde edo elkarte ongile batzuenak, halakorik balego).

5.– Ez da diru-sarreratzat hartuko administrazio publikoek emandako ikasketa-beken edo -laguntzen zenbatekoa.

6.– Harrera-familietan diren ikasleei dagokienez, honako hau joko da errenta garbitzat: ikasleak 2023ko ekitaldian jasotzen dituen diru-sarrerak; horrelakotzat joko dira foru-aldundiak emandako laguntzak. Kasu horietan, harrerari buruzko agindua eta aldundiak erabakitako harrerako baldintzak aurkeztu beharko dira.

7.– Salbuespenezko inguruabarrak direla eta, eskatzaileak zailtasunak baditu frogabideak eskuratzeko, eta ezin baditu egiaztatu bizikidetzaren edo familia-unitatearen 2023ko ekitaldiko baliabide ekonomikoak, beharrezkoa izango da egoera azaltzea eta dokumentu bidez egiaztatzea bizikidetzaren edo familia-unitatearen 2024ko ekitaldian dituen bizibideak.

26. artikulua.– Kenkariak.

1.– Hurrengo paragrafoetan adierazten diren kenkariak kontuan hartu ahal izateko, egiaztatu beharko da kenkarirako eskubidea ematen duten egoerak 2023ko abenduaren 31n betetzen zirela.

2.– Bizikidetzaren unitatearen errenta zehaztu ondoren, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, honako kontzeptuengatik dagozkion zenbatekoak kenduko dira:

a) Familiaren errentaren % 20, eskatzailea erabateko zurtza eta 25 urtetik beherakoa bada.

b) Familiako edozein kide konputagarri ordaindutako errenten % 50, baldin eta ez bada sostengatzaile nagusia.

c) Familia ugariak izateagatik aplikatuko den kenkaria.

Kide konputagarria den neba-arreba bakoitzarengatik 525 euroko kenkaria egingo da bizikidetzaren/familiaren unitatearen errentaren gainean, familia-egoitzan bizi bada, eskatzailea barnean dela, baldin eta kategoria orokorreko familia ugariak badira; kopuru hori 800 eurokoa izango da kategoria bereziko familia ugarietan. Eskatzailea familia ugariaren titularra bada, aipatutako kopuruak familia osatzen duen seme-alaba bakoitzarengatik kenduko dira.

e) Desgaitasunagatiko kenkaria:

i.– 1.811 euro neba-arreba bakoitzeko, edo eskatzailearen seme-alaba bakoitzeko edo eskatzailearengatik beragatik, betiere legez kalifikatutako % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa badu.

ii.– 2.881 euro neba-arreba bakoitzeko, edo eskatzailearen seme-alaba bakoitzeko edo eskatzailearengatik beragatik, betiere legez kalifikatutako % 65eko desgaitasun-maila edo handiagoa badu.

e) 1.176 euroko kenkaria egingo da eskatzailearen hogeita bost urtetik beherako neba-arreba bakoitzeko, baldin eta familiaren egoitzatik kanpo bizi bada, unibertsitate-ikasketak direla-eta familiaren egoitzatik kanpo bizi diren ikasleak bi edo gehiago badira.

27. artikulua.– Ondare-mugak.

1.– Beka ukatu egingo da, aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera kalkulaturako familia-errenta edozein dela ere, baldin eta familiaren kide konputagarri guztien ondarea adierazten duten elementuen balioak, 2023ko abenduaren 31n, muga hauetakoren bat gainditzen badu:

2.– Hiri-finken kasuan, familiako kide konputagarrienak diren hiri-finken katastro-balioen batura –ondasun higiezin guztienak kalkulaturak– ezin izango da 42.900 eurotik gorakoa izan. Zenbateko horretan ez dira honako hauek kontuan hartuko:

– Ohiko etxebizitza eta haren trastelekua.

– Jabetza soileko ondasun higiezinak, gozamina bizikidetz-unitatetik kanpoko pertsona bati badagokio. Egoera hori Jabetza Erregistroko ohar soil batekin egiaztatu beharko da, zeinak egungo data izan beharko baitu.

a) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean dauden hiri-higiezinen katastro-balioa kalkulatzeko, katastro-balioa bider 0,36 egingo da.

b) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden hiri-finken katastro-balioa kalkulatzeko, honako arau hauek aplikatuko dira:

Katastroko azken berrikuspenaren data eraginkorra 1990eko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31ra artekoa baldin bada, katastro-balioak 0,49 koefizienteaz biderkatuko dira. Berrikuspen horren eguna 2002ko abenduaren 31ren ostekoa baldin bada, honako koefiziente hauek erabiliko dira katastro-balioak biderkatzeko:

0,43 koefizientea, 2003an berrikusi direnetarako;
0,37 koefizientea, 2004an berrikusi direnetarako;
0,30 koefizientea, 2005ean berrikusi direnetarako;
0,26 koefizientea, 2006an berrikusi direnetarako;
0,25 koefizientea, 2007an berrikusi direnetarako;
0,25 koefizientea, 2008an berrikusi direnetarako;
0,26 koefizientea, 2009an berrikusi direnetarako;
0,28 koefizientea, 2010ean berrikusi direnetarako;
0,30 koefizientea, 2011n berrikusi direnetarako;
0,32 koefizientea, 2012an berrikusi direnetarako;
0,34 koefizientea, 2013an berrikusi direnetarako;
0,36 koefizientea, 2014 eta 2021 artean berrikusi direnetarako, biak barne.
0,35 koefizientea, 2022an berrikusi direnetarako;
0,34 koefizientea, 2023an berrikusi direnetarako.

Nafarroako Foru Komunitateko higiezinaren katastro-balioa 0,50 koefizienteaz biderkatuko da.

Eskatzaileak higiezinaren katastro-berrikuspena zer urtetan egin den ziurtatu beharko du, katastro-balioaren koefizienteak aplikatu ahal izateko.

3.– Landa-finkak.

a) Landa-finketan dauden eraikinen katastro-balioen batura –barnean hartuta izaera bereziko ondasun higiezinak eta kanpoan utzita familiaren ohiko etxebizitza den eraikinaren katastro-balioa– ezin izango da 42.900 eurotik gorakoa izan. Eraikin horiei aurreko apartatuan ezartzen diren koefiziente biderkatzaileak aplikatuko zaizkie, eginiko azken katastro-berrikusketaren urtearen arabera.

b) Familiako kide konputagarriek dituzten landa-finken katastro-balioen batura, eraikinen katastroko balioak kenduta, gehienez, 13.130 eurokoa izango da kide konputagarriko.

4.– Balore higigarriak. Eskatutako ikasketa-beka edo -laguntza ukatu egingo da, noiz eta bizikidetzta-unitatearen kapital higigarriaren etekin garbi murriztuen batura gehi ondare-irabazi eta -galeren saldo garbi positiboa 1.700 eurotik gorakoa denean.

Batura horretan ez dira sartuko ohiko etxebizitza erosi, birgaitu edo alokatzeko jasotako dirulaguntzak, oinarrizko emantzipazio-errenta eta jolas, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan lortutako sarien zenbatekoa (eskudirutan edo gauzaz), 1.500 euroko zenbatekoraino. Aipatutako sarietatik eratorritako ondare-irabaziak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiarekin bat zenbatuko dira.

5.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian xedatutakoaren arabera zehaztuko da ondarea adierazteko elementuen balioa, 2023ko abenduaren 31ko balioagatik.

6.– Familiako kide konputagarriek aurreko ataletan zehaztutako ondare-elementu bat baino gehiago badituzte, elementu bakoitzaren balio-ehunekoa kalkulatu da dagokion mugarekiko.

Aipatutako ehunekoen batuketak ehun gainditzen duenean, ukatu egingo da ikasketa-beka edo -laguntza.

7.– Merkataritza-, industria- edo lanbide-jarduerak. Eskatutako ikasketa-beka edo -laguntza ukatu egingo da, halaber, egiaztatzen denean familiako kide konputagarriek jasotako eta jarraian adierazitako diru-sarreraren baturak 155.500 euroko zenbatekoa gainditzen duela:

a) Ekonomia-jardueretatik datozen diru-sarrerak, zuzeneko zenbatespenean edo zenbatespen objektiboan.

b) Kide konputagarriek nortasun juridikorik gabeko erakundeen edo beste edozein erakunde juridikoren bidez egindako jarduera ekonomikoetan parte hartzean lortutako diru-sarrerak, jardueren diru-sarrera osoei parte-hartzearen ehunekoa aplikatu ondoren.

8.– Aurreko paragrafoetan aipatutako elementuen balioa zenbatzeko, familiako edozein kide konputagarri dagozkion elementuen balioaren ehuneko 50 kenduko da, sostengatzaile nagusiak alde batera utzita.

28. artikulua.– Betekizun akademikoak.

1.– Ikasketa-mailaren arabera, hauek izango dira betekizun akademikoak:

a) Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan, soilik egiaztatu beharko da ikaslea 2024-2025 ikasturterako matrikulatuta dagoela.

b) Oinarrizko mailako heziketa-zikloetan eta musikako eta dantzako oinarrizko ikasketetan, egiaztatu beharko da ikaslea 2024-2025 ikasturterako matrikulatuta dagoela eta ez dela ari errepikatzen.

c) Batxilergoan, musika eta dantzako ikasketa profesionaletan, Lanbide Heziketako erdi-mailako graduari, arte plastikoaren eta diseinuaren erdi-mailako graduari eta kirol-ikasketen erdi-mailako graduari, egiaztatu beharko da ikaslea 2024-2025 ikasturterako matrikulatuta dagoela eta ez dela ari errepikatzen. Batxilergoko lehen mailako ikasleek 5,00 puntuko batez besteko nota lortu beharko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan edo, hala badagokio, sartzeko proban.

d) Lanbide Heziketako goi-mailako graduari, arte plastikoaren eta diseinuaren goi-mailako graduari eta kirol-ikasketen goi-mailako graduari, egiaztatu beharko da ikaslea 2024-2025 ikasturterako matrikulatuta dagoela eta ez dela ari errepikatzen. Irakaskuntza horietako lehen mailako ikasleek 5,00 puntuko batez besteko nota lortu beharko dute Batxilergoko bigarren mailan edo sartzeko proba edo ikastaroan, hurrenez hurren, edo goi-mailako heziketa-ziklora sartzeko aukera ematen duen erdi-mailako heziketa-zikloaren azken kalifikazioan.

Ikasketa horietako bigarren mailako ikasleek aurreko ikasturtean (2023-2024) egindako ikasketen ehuneko laurogeita bosta gainditu beharko dute gutxienez.

e) Hizkuntza-ikasketetan, egiaztatu beharko da ikaslea 2024-2025 ikasturterako matrikulatuta dagoela eta ez dela ari errepikatzen. Beka lortu ahal izango da dagokion ikasketa-planeari ezarritako urte-kopuruan eta gehienez ere 2 hizkuntzatarako, betiere aldi berean egiten ez badira.

Atal honetan aurreikusitako ondorioetarako, eskatzaileak ebaluazio- eta kalifikazio-deialdiei uko egiten badie, ez da ulertuko ikasturtea errepikatzea denik.

2.– Ikasturteren bat ikasketarik egin gabe igaroz gero, egin den azken ikasturtearekiko eskatuko dira adierazi diren betekizunak.

3.– Ikasketa guztiak edo zatiren bat beka baten bitartez egin badira eta ikasketak aldatzen badira, ezin izango da bekarik jaso aldaketa horrek hezkuntza-prozesuaren barruan urte bat edo gehiago galtzea badakar. Ez da laguntza galduko bakarrik baldin eta indarrean dagoen legedian aurreikusten bada irakaskuntzako beste maila edo gradu batera pasatzea aurretik egindako ikasketen jarraipena izan daitekeela. Autonomia-erkidego honetatik kanpo bekadun izan diren ikasleek bekadun-izaera egiaztatu beharko dute. Gainerako ikasleen kasuan, automatikoki egiaztatuko da hori.

4.– Oso-osoan bekarik gabe egindako ikasketak aldatzen badira, ikasketa berrietan beka lortzeko eskatzaileak utzitako ikasketetako azken ikasturtean lortu beharreko errendimendua joko da betekizuntzat.

5.– Lanbide Heziketako edo Batxilergoko ikasketak egiten dituztenek, gaueko modalitatean, urrunekoan edo matrikula partzialean, soilik oinarrizko bekaren osagaiak eta zenbateko osagarria jasoko dituzte, eta beka jaso ahal izango dute dagokion ikasketa-planeari ezarritako ikasturteetan eta aparteko batean.

6.– 900 orduko edo gutxiagoko kirol-ikasketetan matrikulatu direnek soilik oinarrizko bekaren osagaiak eta zenbateko osagarria jaso ahal izango dituzte. Iraupena 900 orduetik gorakoa bada, dagozkien osagai guztiak jaso ahal izango dituzte.

7.– Musika-ikasketetan, hezkuntza-prozesuan bekadun gisa jarraitzeko, ikasleak landutako musika-tresna edo emandako jakintzagaia hartuko da kontuan, maila goragokoa denean.

29. artikulua.– Genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimetzako beken araubidea.

1.– Genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeek, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, edozein unetan 2023ko ekainaren 30etik 2025eko ekainaren 20ra bitartean emandako dokumentua aurkezten badute, bai eta hogeita bost urtetik beherako seme-alabek eta haien tutoretza edo zaintza eta jagoletza duten adingabeek ere –horiek guztiak 2023ko abenduaren 31n–, honako hauek lortu ahal izango dituzte 2024-2025 ikasturtean, betiere indarreko araudian ezarritako gainerako baldintza guztiak betetzen badituzte: oinarrizko beka, errentari lotutako zenbateko finkoa, zenbateko osagarriaren osagaia eta bizilekuari lotutako zenbateko finkoa.

Araubide bera aplikatuko zaie 2023ko abenduaren 31n adingabeak diren eta, adierazitako aldian, sexu-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten pertsoneri, honako hauetan xedatutakoaren arabera: Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 37. artikulua eta Indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak laguntzeko eta sorosteko abenduaren 11ko 35/1995 Legearen 2.1 artikulua.

2.– Aurreko apartatuan aipatutako pertsoneri ez zaizkie aplikatuko gainditutako irakastorduei, lortutako batez besteko notari eta 2023-2024 ikasturtean matrikulatutako gutxieneko irakasgai-kopuruari dagokionez ezarritako betekizunak. Era berean, ez zaizkie aplikatuko honako hauei buruzko betekizunak: ikasketak aldatzea, bekadun gisa emandako urte-kopuruaren muga, eta bekaren onuradun izan diren 2024-2025 ikasturtean kredituen, irakasgaien, moduluen edo horien baliokide diren orduen ehuneko jakin bat gainditzeko eskakizuna.

3.– 1. apartatuan aipatzen diren pertsonak, apartatu horretan aurreikusitako betekizunak betetzeaz gain, 2024-2025 ikasturtean, ordu, irakasgai, modulu edo ordu-kopuru baliokide hauetan matrikulatu beharko dute gutxienez:

a) Irakaskuntza artistikoetako ikasleak: 30 kreditu edo ikasturte osoaren ehuneko 50, irakasgaien arabera antolatutako irakaskuntzen kasuan.

b) Lanbide Heziketako goi-mailako graduak, Arte Plastiko eta Diseinuko eta Kirol-irakaskuntzetako ikasleak: 500 ordu.

c) Batxilergoko, Musikako eta Dantzako irakaskuntza profesionaletako, Lanbide Heziketako erdi-mailako graduak, Arte Plastiko eta Diseinuko irakaskuntza profesionaletako eta Kirol-irakaskuntzetako ikasleak: 4 irakasgai edo 500 ordu, hurrenez hurren.

30. artikulua.– Datuak egiaztatzea.

1.– Bizikidetzaren edo familia-unitateetako kide konputagarri guztien datuak automatikoki ekarri ahal izateko interkomunikazio-sistema elektronikoak erabilgarri ez dauden bitartean, eskatzaileek, eskabidearekin batera, kasu bakoitzean aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte. Hori horrela izanda ere, Sailak zuzenean egiaztatu ahal izango du administrazio eskudunarekin, beharrezkotzat jotzen badu.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c) eta e) artikuluen arabera –datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da erregelamendu hori–, Hezkuntza Sailak Administrazio eskuduneari egiaztatutako datu kide guztien errenta eta familia-ondarea zehazteko beharrezko datuak, beka izapidetzeko erabilgarriak direnekin batera.

2.– Ikusten bada beka edo laguntza emateko beharrezkoak diren betekizunak faltsutu direla edo laguntza ukatzeko arrazoi diren gorabeherak ezkutatu direla, ukatu, aldatu edo ezeztatu egingo da eskatutako beka edo laguntza.

3.– Errenta-iturriak ezkutatuz gero, eskatutako beka edo laguntza ukatu, aldatu edo ezeztatu egingo da. Berdin dio iturri horiek norberaren konturako lana, besteren konturako lana, pentsioak, lanbide liberaleko jardunak, nekazaritza-, abeltzaintza-, industria- edo merkataritza-ustiapenak, kapital higigarriak, finkak, ibilgailuak, aparatuak edo bestelako ondare-elementuak diren. Horrek ez du esan nahi bidezko diren gainerako egintzetatik libre geratzen denik.

4.– Administrazioak, aurreko atalean aipatutako ezkutatze hori gertatzen dela egiaztatzeko, edozein froga mota erabili ahal izango du eta, bereziki, Foru Aldundietako Ogasun Departamentuetan eta Ogasun Ministerioan dauden datuak.

5.– Egiaztatu beharreko datu ekonomikoak atzerrikoak badira edo Euskal Autonomia Erkidegoko foru-ogasunen esku ez badaude, eskatzaileak eman egin beharko du ondorio horietarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa, eta beka edo laguntza ukatu, aldatu edo ezeztatu egingo da datuok behar bezala egiaztatzen ez badira.

6.– Matrikula ezeztatzen badu edo ikasketak uzten baditu, ukatu, aldatu edo ezeztatu egingo dira eskatutako ikasketa-beka edo laguntzak.

7.– Ikasketa-beka edo laguntza ukatu, aldatu edo ezeztatu ahal izango da, baldin eta bizikidetz-unitateek justifikatzen badituzte objektiboki gastu-maila horretatik beherago dauden diru-sarrerak baina ez badute egiaztatzen zer baliabide duten bizitzeko.

8.– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek beharrezko ikusten dituzten agiri osagarriak eskatu ahal izango dituzte kasu bakoitzaren gorabehera bereziak behar bezala jakiteko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa enpresa txiki eta ertainen kasuan ere aplikatuko da, baldin eta horien titularrak merkataritza-sozietateak badira, kide konputagarrietakoren bat sozietate horietako bazkide, partaide... bada, eta, aldi berean, sozietate horietan langile bada.

31. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskaera adin nagusiko ikasleak edo adingabe emantzipatuak egingo du; adingabe emantzipatu gabeen kasuan, berriz, legezko ordezkariak.

2.– Eskaera egiteko, eskaera-formulario telematikoa bete beharko da Hezkuntza Sailaren egoitza elektronikoan, helbide elektroniko honetan: <https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-ikasleak-eskolatzeko-ikasketa-beka-eta-laguntzak/web01-a2hikas/eu/>

Formularioan «telefono mugikorra» eta «helbide elektronikoa» atalak betetzeko aukera ageri da. Horiek bete ostean, eta eskatzaileak espresuki baimentzen badu dagokion laukitxoan hala adierazita, ulertzen da eskatzaileak baimena ematen diola Hezkuntza Sailari Agindu honetako I. eranskineko 35. eta 37. artikuluetan aurreikusitakoez gain beste abisu batzuk emateko.

3.– 2023-2024 ikasturtean beka edo laguntza jaso zuten eta matrikula kudeatzeko aplikazioan jasota dauden mailetan ikasketak egiten ari diren ikasleei beteta emango zaie eskaera-formularioa. Bide telematikotik eskuratu ahal izango da formularioa, <https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-ikasleak-eskolatzeko-ikasketa-beka-eta-laguntzak/web01-a2hikas/eu/> helbide elektronikoan. Paper-formatuan ere jaso ahal izango da ikastetxean.

Formularioan ageri diren datuak zuzenak direla egiaztatu ostean, edota egin beharreko aldaketak egin ondoren, eskabidea aurkeztuko da.

a) Bide telematikoz, aplikazioan eskaera-formularioa elektronikoki sinatuta edota formularioan jasotako egiaztapen-kodearen bidez.

b) Formularioa paperean sinatuta, eta honako toki hauetakoren batean aurkeztuta:

– Beka-eskaeraren xede diren ikasketak egingo diren ikastetxeetan.

– Honako hauetan aipatzen diren bulegoetan: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua eta ekainaren 20ko 91/2023 Dekretua, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.

4.– Gainerako ikasleek modu hauetakoren batean egin ahalko dute eskaera:

a) Elektronikoki, webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-ikasleak-esk-olatzeko-ikasketa-beka-eta-laguntzak/web01-a2hikasl/eu/>. Urrats hauek egin beharko ditu:

a.1.– Ziurtagiri digitala baliatuta sartu (NAN, Izenpe txartela...) edota itsasontzien joko erabilia (B@kq); edo, halakorik izan ezean,

a.2.– sisteman erregistratu, helbide elektronikoko baten bidez eta honako elementu hauetako bat erabilia:

– HNA (Hezkuntza Nortasun Agiria) eta ikaslearen jaioteguna.

– Nortasun Agiri Nazionala (NAN), haren iraungitze-data zehaztuta. Eskatzailea atzerritarra baldin bada, atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) eta jaioteguna adierazi beharko ditu, eta, hala badagokio, atzerritarren identifikazio-txartelaren zenbakia (AIT). Bi kasuetan, 91/2023 Dekretuan azaltzen den datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bidez egiaztatuko da eskatzailearen identitatea (91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa).

Eskaera elektronikoki egin ondoren, eranskinaren 33. artikuluan zerrendatutako dokumentu eskaneatuak atxiki beharko dira, eta eskabidea elektronikoki sinatu. Soilik orduan erregistratuko da, eta eskaera egintzat joko da.

b) Paperean. Horretarako, eskaera egiteko aplikazioak sortutako formularioa inprimatu beharko du, edo ikastetxean eskatu. Ondoren, sinatu egin beharko du, eta hurrengo artikuluan aipatutako dokumentuak atxiki. Eskabidea honako toki hauetakoren batean aurkeztu ahalko da:

b.1.– Beka-eskaeraren xede den irakaskuntza egingo duen ikastetxean.

b.2.– Honako hauetan aipatzen diren bulegoetan: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua eta ekainaren 20ko 91/2023 Dekretua, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.

32. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Eskabideak eta beharrezko agiriak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasi eta 2024ko irailaren 30ean amaituko da, biak barnean direla.

2.– Beka- edo laguntza-eskabideak epe horretatik kanpo aurkeztu ahal izango dira kasu hauetan:

a) Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero aurkeztutako matrikulak badira, betiere matrikula-eskabidearen kopiarekin batera egiten bada eskabidea, matrikula egin eta gehienez ere hilabeteko epean.

b) Aipatutako epeak igaro ostean familiaren sostengatzaile nagusia hiltzen bada, edo arauzko adina betetzeagatik ez den bestelako arrazoiengatik nahitaezko erretiroa hartzen badu.

Nolanahi ere, eskabide berriak 2025eko apirilaren 30era arte soilik onartuko dira.

33. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Beka-eskabidearekin batera, 2023ko ekitaldiko dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Errola-agiriaren egiaztapena ofizioz egingo da, eskatzaileak eskabidean espresuki baimentzen badu. Bestela, bizikidetz- edo familia-unitatearen ohiko bizilekuari dagokion errolda kolektiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, non 2023ko abenduaren 31ko egoera jaso behar baita.

Basaurin (015), Bermeon (017), Leioan (054), Ortuellan (083), Mungian (069) eta Usansolon erroldatutako eskatzaileek, betiere, aurreko paragrafoan aipatutako bizikidetz- edo familia-unitatearen ohiko bizilekuari dagokion errolda kolektiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

b) Dibortzioa, banantzea, erregistratutako izatezko bikotearen desagitea edo antzeko egoerak egonez gero, dibortzio- edo banantze-epaiaren eta hitzarmen arautzailearen fotokopia, baldin eta lehenago aurkeztu ez bada. Azken hitzarmen arautzailearen kopia aurkeztu beharko da, baldin eta haren terminoak aldatu badira. Konpentsazio-pentsioaren egiaztagiri eguneratua, beharrezkoa bada, eta seme-alabentzako mantenu-pentsioarena. Diru-sarreraren fotokopia eta aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotearen diru-sarreraren ziurtagiria, hala badagokio.

c) Gizarte-laguntzen hartzaileen kasuan: udalaren gizarte-zerbitzuek edo beste erakunde edota elkarte ongile batzuek egindako ziurtagiria.

d) PFEZaren aitorpenean zenbatzen ez diren diru-sarreraren kasuan: ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiko pensioaren ziurtagiria, zurtzasun-pensioarena, kaleratzearengatik kalte-ordainena eta abar.

e) Agindu honen 19. eta 26. artikuluetan aurreikusitako kenkariak sorraraz ditzaketan kasuak egiaztatzeke agiriak.

f) Deialdi honen II. kapituluak aipatzen dituen irakaskuntzen kasuan, 2023-2024 ikasturtean lortutako batez besteko notaren ziurtagiria, oinarrizko mailako heziketa-zikloetan izan ezik. 2023-2024 ikasturtean ez badu ikasketarik egin, egiaztagiria egindako azken ikasturtearena izango da.

g) Honako hauek izan ezean, ikaslearen eta eskaera egiten duenaren nortasuna egiaztatzeke agiria aurkeztu beharko da: sailaren identifikazio-zenbakia, nortasun-agiri nazionala, atzerritarren identifikazio-zenbakia edo atzerritarren identifikazio-txartela.

h) Gurasoen etxetik irten dela eta ekonomikoki independentea dela egiaztatzeko, eskatzaileak egiaztatu beharko du bere bizileku propioan –ez gurasoen etxean– erroldatuta dagoela –erositako zein alokatutako etxebizitza batean, bakarrik zein partekatuta–; edota zurtasun-egiaztagiria, bizitzeko zer baliabide dituen eta egoitzaren egoera (jabetzan edo alokairuan) egiaztatu beharko du.

i) Familia-harreraren diren ikasleen kasuan, harrerari buruzko aginduaren eta dagokion aldundiak erabakitako harrera-baldintzen fotokopia, aldezturik aurkeztu ez bada.

j) Bizikidetzaren edo familia-unitatearen diru-sarrerak eta ekonomia-egoera adierazteko, eskatzaileak garrantzitsutzat jotzen dituen edozein agiri: kaleratze-kitapenak, enplegu-erregulazioko espedienteak, behar bezala erregistratutako dohaintzak eta abar.

2.– Eskatzailea izango da eskabidean ematen duen informazio ekonomikoaren erantzule; hala, legez behartuta egongo da bizikidetzaren edo familia-unitatearen diru-sarrera eta ondare guztiak egiaztatzeko agiriak aurkeztera. Eskatu den laguntza ukatu ahal izango da, baldin eta bizikidetzaren edo familia-unitatearen bizi-baliabide guztiak egiaztatzeko agiriak aztertuta, Administrazioak uste badu egiaztatu diren diru-sarrerak bizikidetzaren edo familia-unitatearen gastuak baino txikiagoak direla, aurkeztu den informazioaren edo kanpoko datu batzuen arabera.

Aipatutako zergaren ondorioetarako aitortutako diru-sarreraren datuak edo zerga horretatik kanpo aitortutakoak txikiagoak badira diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo urte horretan erroldatuta egon zen autonomia-erkidegoko laguntza baliokidearen erregulazioaren arabera bizikidetzaren unitateari legokiokeen zenbatekoa baino, justifikatu beharko da zergatik ez zen eskaera egin edo zergatik ukatu zitzaion, eta urte hartako bizi-baliabideak egiaztatu beharko dira (Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren laguntzak eta beste udal-, foru- edo probintzia-laguntza batzuk, halakorik balego), udalaren gizarte-laguntzako zerbitzuek edo beste erakunde edo elkarte ongile batzuek egindako ziurtagiriaren bidez.

3.– Errenta-aitorpena beste autonomia-erkidegoren batean aurkeztu duten bizikidetzaren unitateek edota aurkeztutako aitortenak diru-sarrera guztiak ez baditu, esandakoaz gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Sostengatzaile nagusiaren 2023ko ekitaldiko errenta-aitorpenen (PFEZ) fotokopia guztiak eta, hala badagokio, zerga horren aitortzea egin beharra duten gainerako kide konputagarrienak. Langile autonomoak izanez gero, jardueraren etekinak kalkulatzeko aitortenaren orria ere aurkeztu beharko da.

b) Kide konputagarri guztiek lortutako diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak: gizarte-laguntzak jasotzen badituzte, dagokion erakundeak egindako ziurtagiria; PFEZaren aitortzean zenbatzen ez diren diru-sarrerak, zenbatekoak direla-eta aitortu gabeko diru-sarrerak, balore higigarrien errendimenduak, banku-gordailuak, kontu-korronteen interesak...

c) Profesional eta enpresaburuek aurkeztutako ordainketa zatikatuen aitortenaren fotokopiak.

4.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) aurkezteko obligaziorik izan ezean, kide konputagarri guztiek eskuratutako diru-sarreraren egiaztagiria guztiak aurkeztu beharko dira (gizarte-laguntzak jasotzeko dagokion erakundeak emandako ziurtagiria, PFEZaren aitortzean zenbatzen ez diren diru-sarrerak, zenbatekoa dela-eta aitortu gabeko diru-sarrerak, balio higigarrien errendimenduak, banku-gordailuak, kontu korronteko interesak...); era berean, profesionalak eta enpresaburuek aurkeztutako ordainketa zatikatuengatik aitortenaren fotokopiak ere aurkeztu beharko dira, baita artikuluko honetako lehen zerbakiari jasotako informazioa ere.

5.– Desgaitasunetik edo jokabide-nahasmendu larritik eratorritako hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak garraiatzeko laguntza eta sorospenen kasuan, eskola-garraioan egindako gastuen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte.

6.– Pedagogia-berreziketako, hizkuntza-berreziketako eta adimen-gaitasun handiari lotutako zerbitzurako ikasketa-laguntzen kasuan, ikastetxearen edo berrezitzailearen memoria aurkeztu beharko da, zerbitzu horren ezaugarriei buruzko informazio zehatza jasoko duena, honako hauek barnean direla: asteko eta ikasturteko ordu-kopurua, zerbitzua ematen duen espezialista eta kursoaren hileko eta guztirako kostua.

34. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Ikasleak eskabide-eredua sinatuta aurkezteak, edo hura adinez txikia izanez gero haren ordezkariaren legezko ordezkariak sinatzeak, esan nahi du sinadura horrekin erantzukizun solidariopean hau aitortzen duela:

a) Beka edo laguntzaren deialdiaren oinarriak onartzen dituela.

b) Eskabidean jarritako datu guztiak egiazkoak direla.

c) Beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen partetik bestelako beka edo laguntzarik eskuratuz gero, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako beka atalari jakinarazi beharko diola.

d) Beka edo laguntza jaso eta baliatu ahal izateko ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatuko duela, eta adierazten duela ez dagoela dirulaguntzen onuradun izateko gaitasunik gabe uzten duen inolako lege-auzitan sartuta.

e) Beka ematea bideratu zuten baldintzak bete direla egiaztatzeko beharrezko frogatze-jarduerei men egingo diela, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, dirulaguntzen nondik norakoak fiskalizatzean, eskatuko dioten informazio guztia emango duela.

f) Ikasketak edo ikastetxea aldatu den kasuetan, aurreko urteetan bekadun izan dela, eta, era berean, ez duela beka eskatzen den ikasketa-maila bereko edo goragoko titulu akademikorik eta ez dituela hori lortzeko legezko baldintzak betetzen.

g) Funtsak itzultzea, indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan.

h) Laguntza eman duen erakundeari jakinaraztea matrikula ezeztatu dela edo laguntza emateko kontuan hartutako beste edozein baldintza aldatu dela.

i) II. kapituluko irakaskuntzetako ikasleak: beka zertarako eman den, hartarako erabiliko duela. Egoera hauetakoren bat gertatzen bada, ulertuko da beka ez dela erabili jatorrian zuen xederako:

– Ikastetxean baja ematea 2024-2025 ikasturtea amaitu baino lehen.

– Eskola-orduen % 80ra edo gehiagora joan ez izana, horretarako baimen edo lekapenik izan ez badu.

– Matrikulatutako ordu edo irakasgaien % 50 gainditu ez izana, ohiko edo ezohiko deialdian.

Arestiko h) apartatuan sartzen ez diren ikasleak: laguntza edo sorospena zertarako ematen den, bada horretarako erabiliko da. Ondorio horietarako, ulertuko da honako egoera hauetako batean egon direnek laguntza edo sorospena ez dutela xede horretarako erabili:

– Justifikatu gabe, ikastetxean baja eman izana 2024-2025 ikasturtea amaitu baino lehen.

– Emandako zerbitzuak ordaindu ez izana, baldin eta zerbitzu horiek finantzatzeko laguntza edo sorospena eman bazen.

35. artikulua.– Eskabideen kudeaketa.

1.– Beka edo laguntza zein ikastetxetarako –hezkuntza-zerbitzua ematen duena– eman, ikastetxe horrek funtzio hauek bete beharko ditu:

- a) Ikastetxeko ikasleei eta familiakoei deialdiaren berri ematea; ikasketetarako laguntza edo beka bat eskuratu nahi badute, jarraitu beharreko prozeduraz eta aurkeztu beharrezko dokumentazioaz informatzea.
- b) Prozesuaren segimendua egitea, eskatzaileei behar beste informazio emanaz.
- c) Ikastetxeko zuzendariak edota, hala badagokio, idazkariak egiaztatuko du datuak egiazkoak direla; hain zuzen ere, laguntza edo beka eskatzeko aplikazioko konfigurazio-tauletan bete dituztenak.
- d) Ikastetxean aurkeztutako paperezko eskabideak, egiaztatu ondoren sinatuta daudela, ikastetxeek bideratuko dituzte dokumentazioarekin batera, eta alfabetikoki ordenatutako zerrendetan prestatuko dituzte. Azkenik, ikastetxeek Lurralde Ordezkaritza bakoitzaren Zuzenean Zerbitzura bidaliko dituzte, Hezkuntza Sailak bidalketak egiteko erabiltzen duen mezularitza-zerbitzuaren bidez.

2.– Lurralde-ordezkaritza eskudunak eskabide guztiak eta aurkeztutako dokumentazioa jasoko ditu, eta espedienteak aztertuko ditu. Horrela, baloratuko du bekaduntzat hartzeko betekizun guztiak betetzen dituzten edo ez, eta zer osagaitarako eskubidea izango luketen, betiere Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzarekin koordinatuta; izan ere, azken organo horrek bere gain hartzen du agindu honetan araututako beka eta laguntzak kudeatzeko ardura.

3.– Lurralde-ordezkaritza eskudunak interesdunari eskatuko dio egindako akatsak zuzendu edo ebazpena emateko beharrezkoak diren dokumentuak atxiki ditzala. Horretarako, beren-beregi adieraziko dio zein den zuzendu beharrezko akatsa edo aurkeztu beharrezko dokumentua, eta hamar egun balioduneko epea emango dio, errekerimendua egiten den egunetik zenbatzen hasita. Halaber, bertan adieraziko zaio eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta eskaera artxibatu egingo dela, aurretiaz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz horretarako ebazpena eginda. Abisua bidaliko da interesdunak eman duen gailu elektronikora edo posta elektronikoko helbidera, jakinarazpena eskuragarri duela adierazteko.

36. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Unibertsitateaz kanpoko laguntzak, dirulaguntzak eta beka.

Arduraduna: Hezkuntza Saileko Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza.

Helburua: unibertsitatez kanpoko eta unibertsitate-graduaren baliokideak ez diren ikasketetako ikasleei laguntzak, sorospenen eta beka ematea, eta ikasleei eskola-garraioko laguntzak eta Zuzendaritzaren gainerako laguntzak ematea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena.

- 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.
- 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

- Ogasun eta Finantza Saila.
- Ikastetxe publiko eta pribatuak.
- Banku-entitateak.

Eskubideak: datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotako bestelako eskubideak ere.

Informaziogehigarria: gure web-orriaren kontsultazakezudatu-babesari buruzko informaziogehigarri eta zehaztua: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/043500-capa2-eu.shtml>

Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

37. artikulua.– Ebazteko prozedura.

1.– Lurralde-ordezkaritzetan eskabideak jaso eta gero, horiek bekaren edo laguntzaren behin-behineko ebazpen-proposamenak egingo dituzte.

Lurralde-ordezkaritzek eginiko proposamenen arabera, Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzak emango ditu bekari edo laguntzari buruzko behin-behineko ebazpen partzialak eta ondoz ondokoak.

2.– Aurreko apartatuan aipatutako behin-behineko ebazpenak jakinarazteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko dira (<https://euskadi.eus> webgunean), eta Hezkuntza Sailaren web-orriaren (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>).

Emandako dirulaguntzetan, osagaiak eta zenbatekoak zehaztuko dira, eta, hala badagokio, ukatutako osagaiak eta horretarako arrazoiak ere bai.

Jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, 10 egun balioduneko epea emango da alegazioak egiteko.

3.– Alegazioak aztertu ondoren eta epea igarotakoan, aurretik egin beharreko egiaztapenak eta izapideak eginda, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak behin betiko ebazpena emango du.

Emandako dirulaguntzetan, osagaiak eta emandako zenbatekoak zehaztuko dira, eta, hala denetan, ukatutako osagaiak eta horretarako arrazoiak ere bai.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak onartutako behin betiko ebazpenak jakinarazteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko dira (<https://euskadi.eus> helbidean), bai eta Hezkuntza Sailaren web-orriaren ere (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>).

Prozeduraren ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

4.– Sei hilabeteko epean ebatzi eta jakinaraziko dira laguntza guztiak, deialdia argitaratzen denetik aurrera zenbatuta. Epe hori bukatu eta ebazpen espresurik eman eta jakinarazten ez bada, interesdunek ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala ezartzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 24. artikuluan (urriaren 1eko 39/2015 Legea), hargatik eragotzi gabe gerora espresuki ebaztea.

5.– Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, espresuki horretarako baimena eman badute, SMSak edo mezu elektronikoak igorri eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute, inolaz ere, egindako jakinarazpen balioa izango.

6.– Beken behin betiko ebazpenean, jantokiaren osagaiari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, data horretan dauden datuak erabiliko dira. Ondoren, maiatzeko azken astean, aldatu egin badira jantokira joandako egunak edo beka hori emateko kontuan hartu ziren baldintzak, beka berriz kalkulatu da, deialdi honen 34. artikuluan arabera.

38. artikulua.– Beste erakunde batzuekiko lankidetzak.

Hezkuntza Sailak foru-aldundietako ogasun-departamentuekin lankidetzak kudeatuko du, baita administrazio publikoetako beste edozer erakunderekin ere, honako xede hauek lortzeko:

1.– Baliabide tekniko fiskalak erabiltzea, eskatzaileen familien errenten eta ondarearen benetako balioak neurtu ahal izateko.

2.– Kasu jakin batzuetan egiaztatze- eta kontrol-lanetarako laguntza teknikoa ematea. Eragiketa horietan eraginkortasun handiagoa lortzeko, Hezkuntza Sailak foru-aldundietako ogasun-departamentuetako Datuak Prozesatzeko Zentroei eskatuko die banaka edo bereziki ikertu behar diren kasuen zerrenda.

39. artikulua.– Laguntzen ordainketa.

1.– Laguntza dena batera ordainduko da, hilabeteko epean, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak behin betiko ebazpena ematen duenetik aurrera.

2.– Laguntzaren zenbatekoa eskabidean jasotako kontu korrontean ordainduko da, eta bizikidetzak-unitateko kide konputagarri batek haren titularra izan beharko du. Ez dira hala ordainduko, ordea, kudeaketa zuzeneko jantoki-zerbitzua duten ikastetxe publikoetan ikasten duten ikasleen laguntzak; izan ere, laguntza horiek zuzenean sartuko dira ikastetxe horien kontuan.

3.– Jarritako gora jotzeko errekurtoen ondorioz gorantz aldatu beharko balitz emandako laguntzen zenbatekoa, ordainketa osagarri bat egin beharko da hilabeteko epean, aipatutako errekurtoak osorik edo zati batean onesten dituen ebazpena ematen den egunetik kontatzen hasita.

40. artikulua.– Aldatzea, errebokatzea eta itzultzea.

1.– Laguntza aldatzea erabaki ahal izango da beka edo laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, aldi berean beste laguntza edo dirulaguntza batzuk lortzen badira eta helburu bererako beste edozein diru-sarrerara edo baliabide jasotzen bada, betiere Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 20. artikuluan xedatutako baldintzetan egiten bada.

Emandako laguntza aldatzeko ebazpenak espedientearen entzunaldi- eta ikustaldi-izapidea izan behar du aldez aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 82. artikuluan aurreikusten duen moduan.

2.– Laguntza errebokatu eta, hala badagokio, itzuli egingo da, beka edo laguntza eman den berariazko helbururako erabiltzen ez bada, laguntza eskuratzeko eskatutako baldintzak betetzen ez direla egiaztatzen bada, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotako gainerako kasuetan.

Errebokatzea erabaki ondoren, emandako zenbatekoa oraindik ordaindu ez bada, ezingo da ordaintzeko eskatu, eta, ordainduta egonez gero, jasotako zenbatekoak eta horien legezko interesak itzuli beharko dira.

I. eta III. kapituluetakako irakaskuntzetako ikasleek ikasketak uzten badituzte, emandako laguntzaren edo sorospenaren izaera kontuan hartuta, jasotako osagaiak proportzionalki itzuli beharko dira, bertan behera utzitako aldiari dagokion zenbatekoan, eskola-materialaren osagaia eta gastu gehigarri orokorretarako sorospena izan ezik, ez baitira itzuli beharko.

3.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan ezarritakoa izango da itzultzeko prozedura.

4.– Itzulketa agintzen duen ebazpenean, beharrezkoa den informazioa jasoko da, itzulketa egiteko betebeharra bete ahal izateko, legezko diruz edo txekoz edo Ogasun eta Finantzetako sailburuak baimendutako beste edozein bide erabiliz. Horretarako, bi hilabeteko epea emango da, dirua itzultzeko betebeharra ezartzen duen ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Itzuli beharreko diruaren zenbatekoaren eta ikaslearen bizikidetz-unitatearen kaudimen ekonomikoaren arabera, Ekonomia eta Ogasun Sailak ordainketa gehienez hiru zatitan eta urtebeteko epean egitea onar dezake, interesdunak hala eskatuz gero, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan diru-bilketaren inguruan indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz.

Eskuratutako zenbatekoak borondatez itzultzen ez badira, premiamendu-bideari ekingo zaio.

5.– Ikasketa-laguntzak aldatzeko, errebokatzeko edo itzultzeko ebazpenen berri eman ahal izango zaie agintari fiskal, akademiko edo, hala badagokio, judizialei, sor daitezkeen gainerako erantzukizunak eskatzeko.

41. artikulua.– Bateragarritasuna.

Eranskin honetan araututako ikasketa-laguntzak, bekak eta sorospenak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuetatik ikasketa berberetarako jaso daitezkeen beste edozein onurarekin, betiere horiek guztiak batuta ez bada gainditzen laguntzaren xede den gastuaren % 100. Kasu horretan, dagokion zenbatekoa murriztu egingo da.

2024-2025 ikasturtean unibertsitate-ikasketak egiteko beka jasotzen duten ikasleek ezingo dute jaso agindu honetan araututako ikasketa-laguntzarik, bekarik eta sorospenik.

42. artikulua.– Ikuskatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ahalmena izango du datuak benetakoak direla exijitzeko eta egiaztatzeko egintzak abiarazteko, bai eta eranskin honetan araututakoa betearazteko ere.